



Universidad  
del País Vasco


Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Gradu Amaierako Lana

## LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

**“Beste hizkuntza eta gizarte batzuk eskolan: Alkira oin-puntetan”**



**Egilea: Ainhoa Hormaetxe Zarraga**

**Zuzendaria: Aintzane Etxebarria Lejarreta**

Leioan, 2019ko maiatzaren 29an

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Marko teorikoa.....	4
1.1. Kulturaren definizioa.....	4
1.2. Beste kultura eta hizkuntza batzuk gure gizartean.....	5
1.3. EAEko legedia eta kultura- nahiz hizkuntza-aniztasuna.....	6
1.4. Aniztasuna hurbilagotik ezagutzen: egun arte egin izan diren zenbait proiektu...10	
1.5. Bizitza-istorioak: ikertzeko baliabideak baino gehiago.....	11
2. Proposamena: “Alkira oin-puntetan”.....	13
2.1. Ezaugarriak.....	13
2.2. Lantzen diren edukiak, gaitasunak eta helburuak.....	14
2.3. Jarraitutako prozedura.....	17
2.4. Nori bideratuta.....	17
2.5. Erabiltzeko orientabideak.....	18
3. Ondorioak.....	18
4. Erreferentzia bibliografikoak.....	20

## ERANSKINAK

I.	eranskina. Elkarrizketetarako galdetegia.....	25
II.	eranskina. Datuak erabiltzeko baimena.....	27
III.	“Alkira oin puntetan” istorioa.....	28

**BESTE HIZKUNTZA ETA GIZARTE BATZUK ESKOLAN:  
“ALKIRA OIN-PUNTETAN”**

**Ainhoa Hormaetxe Zarraga**

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honetan hezkuntza munduan aurkitzen den aniztasunaren ildoak jarraituz, hizkuntza eta kulturaren garrantzia aztertuko dira. Halaber, gaian sakontzeko, egungo errealitatearen berri emango da bizitza-istorioen bidez. Horretarako, Alkira izeneko neskatxo batekin munduko kontinente ezberdinetan zehar bidaiatzera gonbidatuko da txosten honetako irakurlea. Berari esker, lan honen xede nagusia bete daiteke: hezkuntzan aurkitzen den aniztasun-kulturala identifikatzea eskoletan lantzeko egiten den proposamenarekin, oraindik ere gizartearen jarraitzen duten emakume eta gizonen arteko ezberdintasunez ohartzeko.

*Aniztasuna, hizkuntza, kultura, bizitza-istorioa, emakumea*

En este Trabajo de Fin de Grado se va a analizar la importancia de los idiomas y culturas, teniendo en cuenta la diversidad que hay en el mundo educativo. Así mismo, para profundizar en el tema, se analizará la realidad actual mediante historias de vida. Para ello, se invitará al lector de esta memoria a viajar por diferentes continentes con una muchacha llamada Alkira. Gracias a ella, se puede alcanzar el objetivo principal de este trabajo: identificar la diversidad cultural en la educación con la propuesta que se hace para este mismo ámbito, y así darse cuenta de las diferencias entre hombres y mujeres que aún existen en la sociedad.

*Diversidad, idioma, cultura, historia de vida, mujer*

In this Final Degree Project the importance of languages and cultures will be analyzed, taking into account the diversity that exists in the educational world. In order to examine the issue in depth, the current reality will be studied through real-life stories. Then, the reader is invited to travel visiting different continents with a teenage girl named Alkira. Thanks to her, it is possible to achieve the main objective of this final work: identify the cultural diversity in education with the proposal made for schools, to realize there are still differences between men and women in society.

*Diversity, language, culture, real-life story, women*

## Sarrera

Munduan aurki daitezkeen kultura eta hizkuntza guztien berri jakitea ia ezinezkoa dela esan daiteke. Izan ere, gizakiekin batera alde batetik bestera mugitzen dira etengabe, eta horrek aniztasun egoerak sortzen ditu. Esate baterako, azken urteotan EAEko hezkuntza-sistemak jasandako etorkin kopuruaren igoerarekin, orain arte jarraitu izan den hezkuntza elebidunean zenbait moldaketa egin behar izan dira.

Horrela, ikasle berri hauei kalitatezko ikaskuntza-prozesu bat izaten laguntzeaz gain, gainerako ikasleei kultura eta hizkuntza berri bat ikasteko aukera ematen zaie. Modu honetan, aniztasunari esker, guztientzat aberasgarria den errealitate ezberdinen berri izaten da. Zoritxarrez, egun ere bazterketa-egoerak ematen dira eta mota horretako egoera orori aurre egiten dion hezkuntza inklusiboa bultzatzeko beharra ikusten da. Inklusioan, aniztasunaren alde aurki daitezkeen bidezko jokabide eta konpromisoak daude, sekula amaitutzat jo ezin daitekeen prozesu honi aurre egiteko.

Hortaz, egungo errealitatea den aniztasunean barrena murgiltzen da lan honetan, honen inguruko aspektu ezberdinak jorratuz; kulturaren definizioa, beste kultura eta hizkuntza batzuk gure gizartean, EAEko legedia eta kultura- nahiz hizkuntza-aniztasuna, martxan jarri diren zenbait proiektu eta bizitza-istorioak ikertzeko baliabide gisa.

Irakurleak aurretik zerrendatutako puntuak irakurriz gero, ildo bera jarraitzen dutenez, bukaeran aurkeztuko den proposamena testuinguru erreal batera hurbildu eta bertan egokitzea lortuko da. Berebat, lau kultura desberdinetako emakumeen bizitza-istorio errealak ezagutu eta lortutako informazioarekin istorio bat sortu da. Honek, munduko zenbait herrialdeetako hizkuntza eta kulturen inguruko datuak biltzeaz gain, emakumeak hartu dira protagonistatzat, oraindik ere gizartean nabariak diren gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak agerian uzteko. Modu honetan, aniztasunari eman geniezaiokeen erantzun posibleetako bat nolakoa den ikusi, ukitu, entzun eta irakurri ahal izango du.

## 1. Marko teorikoa

Hurrengo lerroetan aniztasunaren inguruko azalpenak emango dira, eta horretarako, erreferentzia bibliografiko ezberdinetan oinarritu da.

### 1.1. Kulturaren definizioa

Kulturak gizakien nortasunaren zatirik handienetako bat hartzen du. Izan ere, Rocher-ek (1968) eta Kuper-ek (1991) kultura pentsatzeko, sentitzeko eta baloreak edukitzeko molde mental bat bezala definitzen dute. Horrez gain, kultura ikasi egiten dela eta ingurukoekin partekatuz gizabanakoa kolektibitate bakar edo ezberdinetara uztartu daitekeela defendatzen dute. Kuperren (1991) aburuz, ideiak eta baloreak sinboloekin adierazi eta mezuaren bidez igorri egiten dira. Hau da, hizkuntzaren bitartez. Ondorioz, kultura, sistema sinbolikotzat hartzen du.

Interesgarria suerta daiteke Lowie-k (1917) planteatzen duen hausnarketa, kultura konstantea edo estatikoa dela uste dutenentzat. Antropologo honek honakoa proposatzen du: arraza baten ezaugarriek kultura zehatz baten ezaugarriekin bat egiten dutenean, ezinezkoa da pentsatzea kultura estatikoa dela. Hausnartzekoa da, kultura batek aldaketak jasaten dituenean, doakion arrazan ere islatzen baitira. Modu honetan, bien arteko lotura eta kulturen dinamikotasuna agerian geratzen dira.

Hausnarketa hau jorrazteko, bai Rocherren zein Kuperren (1991) usteak erabiliko dira. Bigarren honen esanetan, kulturak ez dauka zerikusirik arrazarekin. Dena dela, aurretik esan bezala, gizakien molde mentala dela baieztatzen duenez, argi dago kultura gizabanakoen ezaugarritzat jotzen duela. Horretaz gain, biek uste dute transmisioaren bidez kulturak eboluzionatu egiten duela. Halaber, Kuperrek (1991) dioen moduan, kultura *longue durée* (epe luzera) da.

Ildo beretik jarraituz, nabarmentzekoak diren bi kontzeptu aurkitzen dira: kultur aniztasuna eta kultur artekotasuna. Sarritan, zerikusirik izan ez arren, nahastu egiten dira. Berritzeguneak (2000) honen inguruan hausnartu eta bereizketa egin zuen: kultura aniztasunak, kultura ezberdinak aintzat hartu eta errespetatzen ditu, haien arteko elkarrekintzak kontuan eduki gabe. Hau da, ez dio baliagarritasunik ematen kulturen artean egon daitezkeen interakzioei. Hori horrela izanda ere, Kuperrek (1991) adierazi zuenez, kultur aniztasunaren helburuetariko bat kultura guztiek autodeterminaziorako eskubidea

izatea da. Hau da, etorkizunari begira erabakiak hartzeko eskubidea bermatu nahi du kultura orotan eta horretaz gain, gai kolektiboetan edozein kultura izanda hitz berbera izateko aukera defendatzen du. Kultur artekotasuna, ostera, gizarte guztietan dagoen aniztasun kulturalari erreferentzia egiten dion kontzeptu teoriko eta praktikoa da. Berebat, berdintasunean, elkarrekintzan eta gizarte eraldaketan oinarritzen da eta kulturen arteko ezberdintasunak alde batera utziz, hauetako batzuekiko bereizkeria eta xenofobia gaitzesten ditu.

Behin kontzeptu hauek argituta, kultur aniztasunean barrena murgilduta, Terence Turner-ek (Kuperrek aipatua, 1991) alderaketa bat egin zuen kultur aniztasun kritikoa eta ezberdintasunean oinarritutako kultur aniztasunaren artean. Horrela, ba, azken honek kultura bati ematen dio garrantzi guztia. Modu honetan, kultura bakarra nagusitu eta gainerako guztiak gutxiatea lortzen du. Ondorioz, Turner (Kuperrek aipatua, 1991) honen kontra agertu eta kultur aniztasun kritikoa goraiatzeko du, zeinek hierarkikoki gorenaren dauden gizarte-klaseen aurreiritzi-kulturalak zalantzan jartzen dituen.

Aurreiritzi horiek, norberak bizitzan zehar ingurutik jasotako informazioaren bidez sortuak dira. Dena den, gizabanakoaren identitatearen arabera era batera edo bestera interpretatu daiteke aipaturiko informazio hura. Izatez, identitatea sortzeko bi ardatz daudela ondorioztatzen dute Aizpuru-k eta kideek (2013): nahitaezkoa den eta talde bateko partaide izaten ematen den Niaren garapena, eta baita ingurukoarekin izan daitezkeen interakzioak. Azken hau, gainerako pertsona, kultura, gizarte-klase eta abarrekin elkarrengaitzatzen datza. Beraz, argi dago gizabanako guztiek dutela besteen beharrezko aurreiritziak moldatzeko eta erabakiak hartzeko ezinbestekoa duten nortasuna garatzeko.

## **1.2. Beste kultura eta hizkuntza batzuk gure gizartean**

Mundu hau estatuetan banatzeak, Baglietto-k eta kideek (2003) diotenarekin bat eginez, mugak egotea dakar. Aipaturikoek esaten duten moduan, kanpo-mugekin, estatu bakoitzak bertan nor sartzen den eta nor ez erabakitzen du. Barne-mugekin, aldiz, estatu barruan bizi direnen eskubideak ezartzen dira. Pertsonak estatu batetik bestera mugitzean, herrialdeetako biztanleek oraindik ere bereganatuta dituzten ideia okerren ondorioz etorkinen eta migrazioaren inguruko eztabaidak sortzen dira.

Lehenik eta behin, etorkina nor den argitu beharko litzateke. Izatez, gizartean etorkin bezala ulertzen da beste herrialde batean jaio eta bizitzeko herrialdez mugitzean den pertsona (Arexolaleiba, 2004). Hortaz, Baglietto-k eta kideek (2003) esaten duten bezala, gizarteak

duen ideia okerretako bat, jada etorkina den horren ondorengoei, bertan jaiok direnei, etorkin deitzea da. Gainera, estatuak zabaltzen duten integrazio-eredua asimilazioa izanik, horren bidea jarraitu behar dela uste da, kanpotik datorrena gure berdin bihurtzen denean integratuko dela pentsatuz. Horretarako, bertakoen aukera, betebeharrak eta eskubide berberak edukitzea ezinbestekoa izango litzateke. Nahi eta nahi ez, gizartean duela urte asko bereganatutako aurreiritziek jarraitzen dute eta hausnartzekoa da, gizakien eta munduaren historia, pertsonen leku-aldaketei esker bilakatzen eta sortzen baita.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan 2018ko urtarrilean, 3.142.982 biztanle erregistratu ziren (Gaindegia, 2018). Immigrazioaren Euskal Behatokitik zuzendaria den Moreno Marquez-ek (2018) baieztatzen du azken 25 urteotan etorkin kopuruak gora egin duela EAEn. 1993an biztanle guztien %1 ziren etorkinak, eta iaz, %9. Gainera, estatu espainiarreko batez bestekoa altuagoa da, %13koa. Hala ere, herritarren pertzepzioa errealitatek urrun dago: "Herritarrek uste dute jatorri atzerritarreko biztanleak %20,3 direla, baina errealitatea da %8,9koa dela". Izatez, etorkinek "nekazaritza eta eraikuntzako lanak bilatzen dituzte batez ere". Horren ondorioz, Mediterraneo inguruko autonomia eta nazioak dira etorkinen ehuneko altuenak dituztenak.

EAEko biztanleak, bi hizkuntza ofizial dituzte: euskara eta gaztelania. Hala ere, Larrea eta Mieza (2004) historiako doktoreek esaten dutenez, harremanak eta esperientziak partekatzen dituzten beste hainbat hizkuntza eta kultura daude inguruan, eta guztien arteko elkarreragina dago. Haien aburuz, aipaturiko ekintza hauek arautu gabeko ikaste prozesu baten bidez burutzen dira. Izan ere, kulturaren transmisioak funtziona dezan, funtsezkoa da kulturaren eta gizarteko zenbait ezaugarriren (lanbidea, adina, egoera soziala, hiri edo herriaren kokapena, e.a.) artean lotura egitea. Behin hori lortuta, transmisioa abian jartzen da. Aipatzekoa da, kultura adierazpenaren edukiak era ezberdinetan ematen direla, eskola edota institutuaren bidez, esate baterako.

### **1.3. EAEko legedia eta kultura- nahiz hizkuntza-aniztasuna**

Kultura- zein hizkuntza-aniztasun honi erantzuteko legedia LOGSEren bidez sortu zen 1990ean, eta beranduago Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearekin (LEPV) 1993an. Argitara eman zirenetik curriculum bateratua ezartzen duen hezkuntza-sistemari bide eman zaio.

De Carlos García-k eta Rubio Carcedo-k (1995) guztientzat curriculum bateratua ezartzen duen hezkuntza-sistema hau muinbakar eta integratzaile gisa definitzen dute. Alde batetik muinbakarra dela deritzote, prestakuntzarako eta hezkuntza-esperientziarako aukera berberak eskaintzen dizkietelako ikasle guztiei. Beste alde batetik, hezkuntza-sistema integratzailea dela diote, ikasle guztien hezkuntza-premiak asetzeko modukoa delako. Izan ere, ikasgelan aurki daitezkeen interes, motibazio eta gaitasun desberdinetara moldatzen da.

Hezkuntzak aniztasun honi opa diezaiokeen praktika inklusiboen garapena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-inklusihoa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/>) zehazten duenez, bi alderditan ardatzen da: ikaskuntza zein irakaskuntza prozesuan eta ikastetxeak eskura dituen baliabideen antolaketan. Beharrezkoa da garbi uztea, ikasgeletan erabiltzen den metodologia eta irakasleek jokatzen duten rola ere gakoa dela, ikasle guztiek arrakasta lor dezaten. Batez ere, hezkuntza-sisteman lanean jarduten duten profesional guztien arteko lankidetzeta eta elkarlana oinarritzakoa da, ikasleek ikasgai ezberdinetan landutakoaren artean jarraitasun halako bat ikusteko.

Alde horretatik, hezkuntza-plangintzak egitean, ikasleengandik gertueneko testuinguruak aintzat hartzea komeni da (Berritzeguneak, 2015). Kasu honetan, testuingururik hurbilena ikasgela da, eta honi behar besteko garrantzia ematea ezinbestekoa da bertan ziurtatu behar baita inklusioa eta ikasle guztien parte-hartze aktibo berdintsua. Era berean, ikasleen premiak asetzeko baliabide eta babes espezifiko nahiz osagarriak era egokian antolatzeko beharra dago: hala nola, ikerketen bermea jaso duten metodologia eta estrategiak erabiltzea, ikasleen bizimoduekin bat datozen ikasgelarako programazioak planifikatzea eta baita parte-hartzea oinarri duten ekintza edo antolaketak bultzatzea. Horien artean, talde interaktiboak, tutoretza pertsonalizatuak edota irakaskuntza pertsonalizatuak aurki ditzakegu.

Hori horrela izanda ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 138/1983 Dekretuak Euskal Herriko hizkuntza ofizialen erabilera unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan nola izan behar den zehazten du. Bertan, irakaskuntza elebiduneko hizkuntza-ereduak ezartzen ditu, bi hizkuntza ofizialen erabilera sustatuz, haien ofizialtasuna arautuz, haien ezaguera bermatzeko beharrezko neurri eta baliabideak ezarriz eta arautuz, eta baita Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren aniztasuna kontuan hartuz ere:

- **A eredia:** irakas-hizkuntza gaztelania da, Euskal Hizkuntza eta Literaturan izan ezik.
- **B eredia:** irakasgai batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk euskaraz irakasten dira.



- **D eredua:** irakas-hizkuntza euskara da, Gaztelania Hizkuntza eta Literaturan izan ezik.

Esan beharra dago, Dekretuak argi uzten duela X eredua ez dela hizkuntza-eredu ofiziala. Horren barruan sartzen baitira atzerriko mendekotasuna duten ikastetxeetan dauden ikasleak, euskara ikasgaia ikasten ez dutenak.

Modu honetan, agerian uzten da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemak aniztasuna kontuan hartzen duela eta erronka honen helburu nagusia, ikasle guztien ahalik eta ikaskuntza-prozesurik aberatsena dela.

Aurretik aipatutako legeek hizkuntza aniztasuna aberastasun kolektibotzat jotzen dute (Berritzeguneak, 2000). Hori gutxi balitz, gizartean hizkuntza askok elkarbizitzen dutenez, hezkuntza legeen helburuetariko bat ikasleek haien autonomia erkidegoko hizkuntza ikasteaz gain, kultur aberastasuna aintzat hartzea da. Honi esker, haien kulturarako erreferentziak aurki ditzakete, inguruko kulturak balora eta errespetatzen ikasten duten heinean.

Agerian dago gizarte-taldeak askotarikoak direla, eta horrek ikasteko eta hobetzeko aukera ematen du. Honek, lotura zuzena dauka hezkuntza inklusiboaren munduarekin eta bertan dihardutenek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-inkluisboa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/>) azaltzen duenez, aniztasun-adierazpen ezberdinak izan ditzakete aurrean:

- **Kultura-aniztasuna.** Gizakiak kultura bateko kide dira, eta denok izan gaitzeko kulturalki desberdinak. Hori horrela izanda ere, sarritan beste kultura batzueganako mespretxuzko jarrerak egoten jarraitzen dute gizartean, erabat ekidin beharrekoak direnak.
- **Sexu-joeren aniztasuna.** Badira ikasleak, denboran zehar sexualitateari dagokion aniztasunari bizkarra eman dieten pertsonen jarreraren ondorioz, haien burua baztertuta sentitu dutenak. Gaur egun, aldiz, egoera hobetuz doa eta sexu-joeren aniztasuna lantzen eta defendatzen duten hainbat ekintza zein programa martxan daude.
- **Genero-aniztasuna.** Ikasle guztiak haien bizitza osorako gizarteko aurreiritzi eta jarrerengatik baldintzatuta daude. Zoritxarrez, egun, desberdintasun bidegabe askoren inguruko egoerak egoten jarraitzen dute.

- **Baliabide sozio-ekonomikoen aniztasuna.** Ezinbestekoa da hezkuntza-sistemak ahalik eta neurririk handienez konponbideak bilatzea gizarte- eta ekonomia-maila apaleko haur eta gazteek hezkuntza-sistemara iristeko dituzten desabantailei. Modu honetan, eskolako ekintzetan parte-hartzea eta lorpen akademikoak erdiestea lortzen da.
- **Gaitasun-aniztasuna.** Pertsona bakoitzak abilezia ezberdinak izango ditu, eta bere burua hobeto maneiatuko du testuinguruaren arabera. Eskola inklusiboaren helburuetako bat ikasle guztien gaitasunak hobetzea da, testuinguruak, proposamenak eta estrategiak aberastuz lortzen dena. Horrenbestez, prozedura bat jarraitzen da ikasleen gaitasun nagusietatik hasi eta zailtasunak izan ohi dituztenekin bukatuz. Honela, ikasleek haien burua ahalik eta gehien garatuz, beraien gaitasunetan mailarik gorenera irits daitezke.

Eremu hauek desberdintasun- edo bazterketa-egoeraren baten ispilu direnean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-inkluisioa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/>) zehazten duenez, inklusioa oinarritzat hartzen duen hezkuntza-sistemak arreta eskaini eta eraginkorrenak izango diren baliabideen hautaketa egin behar du. Oro har, kolektiborik mehatxatuenak izaten dira, eta hezkuntzaz gain familiek, gizarte-inguruneak eta hezkuntza-administrazioak parte hartu beharreko kasuak dira. Kontuan hartuz eskola inklusiboan, ikasleek, irakasleek, familiek eta/edo ordezkari legalek eta gizarte-eragileek hartzen dutela parte. Hortaz, denen artean osatzen dute komunitateari zentzua ematen dion sarea, nork bere burua gizarte eta ikastetxe bereko kide sentitzeko moduko guneak sortuz.

Jarraian ezagunenak suerta daitezkeen hiru txertatze-ereduak azalduko dira (Vicente, 2008):

- **Eredu asimilatzailea.** Lehenengo eredu hau XX. mendean sortu zen, gizarte homogeneo bat lortzeko asmoarekin. Bere izenak dioen moduan, asimilatzean datza, beste kultura bat onartu eta horrek dioen guztia egitean. Ondorioz, gutxiengo kulturak, kultura dominatzailearen ezaugarriak bereganatu eta azken hau ahazteko edo alde batera uzteko arriskua dago.
- **Eredu kultur anitza.** Bigarren eredu hau hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan sortu zen, desberdina izateko eskubidea eta kultura-pluralismoa

oinarriztat hartuta. Azken honek etniaren, kulturaren, erlijioaren, hizkuntzaren eta beste zenbait arloko taldeak gizarte berean harmonian bizi daitezkeela defendatzen du. Modu honetan, inguruko kulturen errespetua eta elkarrekin bizi egin ahal izatea bultzatzen du, hauen arteko elkarrekintzei garrantzirik eman gabe. Hau da, ez dago kulturen arteko trukerik eta horregatik zatikatzeko-sozial bat gerta liteke eredu hau jarraitu ezker.

- Kultura arteko eredua. Hirugarren eredu hau, duela zenbait urte sortu zen eta honek ere, kultura-pluralismoa defendatzen du. Gainera, kultura eta nortasuna sortzeari buruzko ikuspegi dinamikoagoa defendatzen du. Aldi berean, gizarteko talde ezberdinen elkarreraginetatik abiatuta, gizartean eredu berri bat sortu daitezkeela aitortzen du, non eredu berri horretako pertsona guztiak partaide sentitu daitezkeen.

Deskribaturiko ereduak zeintzuk diren ikusita, agerian utzi dira bakoitzaren ezaugarriak nolakoak diren. Beraz, aukeratzen den ereduarekin gizartea era batekoa edo bestelakoa izatea lortuko denez, egokiena hezkuntza-erakundeak kultura arteko eredua hautatzea izango litzateke. Modu honetan, giro oneko, gizarte-bazterketarik gabeko eta aniztasunez jositako gizarte atseginean murgilduta bizitzea errealitatea izango litzateke.

#### **1.4. Aniztasuna hurbilagoetik ezagutzen: egun arte egin izan diren zenbait proiektu.**

Bide hori jarraituz, aniztasunari bide emateko jada EAEn martxan jarritako programa bat aurki daiteke (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014): “Hamaika Esku”. Honakoak, 2013 eta 2014 urteen bitartean ikastetxeetan burututako kanpo-diagnostikoekin (PISA, diagnostiko-ebaluazioa [DE]) lotura zuzena dauka. Izan ere, ekimen instituzional honen helburu nagusia, aztergai horietan egoera sozioekonomiko zein kultural ahuletako ikasleek lortutako emaitzak hiru ikasturteko epearekin hobetzea da.

Gipuzkoan ere hainbat programa daude martxan. Urtxintxa aisialdiko elkartearen eskutik, esate baterako, “Ale Tita Konba” aurki daiteke. Programa hau, euskararen ezagutza, erabilera zein balioa eta beste hizkuntzekin duen harremana lantzeko burutu da (urtxintxa.eus). Izatez, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleei zuzenduta dago, eta hauek dira ezarritako helburuak: euskararen oinarrizko ezagutza lortzea, eskolaz kanpo euskaraz bizi diren hurrekin harremanetan jartzea, hartzaileen hitzun tipologia optimizazioa eragitea faktore ezberdinei (motibazioa, ezagutza eta erabilera) erreparatuz, euskaraz hitz egiteko lotsa

kentzea, euskaraz jolastuz gozatzea, euskarari balio erantsia ematea, euskal gizartearen parte sentiaraztea, euskal gizartean dagoen aniztasuna ezagutzea eta euskal kultura eta beste kulturen arteko berdintasunak identifikatzea. Programa hau saio batean baino gehiagotan landu daiteke, iraupena lortu nahi diren helburuen arabera zehazten baita.

Hala ere, Espainiako estatuan ere kultura- eta hizkuntza-aniztasuna bultzatzeko programak daude. Adibidez, “Red de Escuelas Interculturales: programa de sensibilización sobre diversidad cultural” deritzona dago (Liga española de la educación, 2017). Programa hau Madrilan, Kanarietan, Gaztela eta Leonen eta Murtzian dago abian, eta honen helburu nagusiak kultur artekotasuna sustatzea, testuinguru sozialean aniztasunaren onarpena erraztea eta Espainiako estatuko gizartean etorkinen integrazioa laguntzea dira. Honetarako, jolasean eta pedagogian oinarritutako sentsibilizazio-jarduerak, hezkuntzan lan egiten duten profesionalen bideratutako *online* formazioak, eta webgunean martxan jarritako ekimenen hedapena egiten dira programan.

Horretaz gain, badaude aniztasunari bide emateko beste baliabide batzuk: adibidez, liburuak. “Niños de los cinco continentes” liburua, esate baterako, 0-18 urte bitarteko irakurleei zuzenduta dago eta “Para aprender más” bildumaren parte da. Honen egileak, Uwe Ommer, Laure Mistral eta Anne-Sophie de Monsabert dira, eta gazteleraz idatzitako liburu honetan bost kontinenteetako haurrak ezagutu daitezke: Peruko Walter, Estatu Batuetako Samuel, Errusiako Svetlana, Turkiako Özlem eta Angolako Miguel. Uwe Ommer argazkilaria bidaiari joan zenean ezagutu zituen, eta argazkiak ateratzeaz gain, haien bizitzak ezagutzeko aukera izan zuen. Hortaz, kontinente ezberdinetako haur hauei esker, liburuan kultura eta bizimodu anitzez gozatzeko aukera dago.

Beste aukera bat, “¡Todo el mundo!” liburua da. Honen egilea, Anja Tuckermann da, eta 6-12 urte bitarteko irakurleei zuzenduta dago. Gazteleraz idatzitako istorio honetan protagonista ugari aurki daitezke: Samira, Amad, Aziza, Yousri eta Natalia. Guztiak Espainian bizi dira, baina bertara heltzeko bizitakoa erabat desberdina izan da. Haien bizimoduen artean ez dago antzekotasunik, eta horregatik, kultura ezberdinen bizikide izatearen onura eta kalteak aditzera ematen dira liburu honetan.

### **1.5. Bizitza-istorioak: ikertzeko baliabideak baino gehiago.**

Hari beretik, ikasleen testuinguruaren berri jakiteko ikerketa-prozesu bat aplikatu behar da. Prozesu hori, Bisquerra-k (Chárriez-ek aipatua, 2012) adierazi zuenez, kuantitatiboa

edo kualitatiboa izan daiteke. Lehen horrek, objektibotasuna du helburu gisa, eta subjektu ezberdinak aztertuz emaitza zehatzak lortzean datza. Behin ikerketa bukatuta, errealitatearekin alderatu egiten dira eskuratutako emaitzak, hipotesiak egiaztatzeko. Hala ere, egun oso erabilia den prozesu-kualitatiboa dago. Honek gehiago hartzen ditu kontuan baloreak, jarrerak, iritziak, ikuspuntuak eta sinesmenak. Modu honetan, subjektibitatea bilatzen da, eta subjektuek errealitatea eta bizitzako esperientziak kontatzeko eta deskribatzeko era hartzen da oinarritzat.

Ikerketa-prozesu mota bakoitzak era bateko edo besteko baliabideak erabiltzen ditu (Monje Álvarez, 2011). Kuantitatiboen kasuan honako hauek erabili daitezke: egituratutako elkarrizketa, norberak zuzendutako galdetegia, sistematizatutako, araututako eta kontrolatutako behaketa, jarrera eta iritzien eskala, eta bigarren mailako informazio-iturria edo estatistika. Kualitatiboen kasuan, ostera, beste hauek aurki daitezke: egiturarik gabeko elkarrizketa, elkarrizketa sakona, talde murriztua, sinplea, arautu gabea eta parte-hartzailea den behaketa, bizitza-istorioak, edukiaren analisisa eta metodo etnografikoa.

Pertsona bakoitzaren bizitzak istorio bat osatzen du, eta asko dira honen zatiren bat gogoratu egiten ez dutenak. Hala ere, gehienek guztiz ezagutzen dute beraien bizitza-istorioa (Ezama, 2015). Era berean, norbaitek bere bizitza-istorioaren berri edukiko du bere inguruan dituen pertsonen esker. Izatez, zaindu eta maite egiten duten pertsonen emandako informazio eta datu guztiei esker jakingo du norbaitek nolakoa izan den hasieratik bere bizitza-istorioa. Hauekin edonoren nortasuna erabat deskribatu egiten da. Horregatik, bizitza-istorioa beste norbait ezagutzeko metodo gisa erabiltzen da.

Ruiz Olabuenágana-k (Chárriez, 2012), bizitza-istorioen helburuak zehaztu egiten ditu:

1. Esperientzia biografiko bat bere osotasunean batzea, espazio eta denboran. Haurtzaro garaitik gaur egunera arte, pertsona baten intimitatea, harremanak, familia, aldaketa pertsonalak, gizartearen eboluzioa, momentu kritikoak, lasaitasun uneak eta banakoaren inklusioa zein bazterketa bere inguruko gizarte taldean nolakoak diren biltzea.
2. Aldaketa eta anbiguotasuna biltzea. Bizitza-istorioa pertsona batek bere bizitza osoan zehar jasan dituen aldaketa guztiak ezagutzean datza; anbiguotasunak, logika faltak, zalantzak, kontraesanak eta baita bizitzan esperimendatutako atzera-bueltak.

3. Nork bere burua eta mundua nola ikusten dituen ezagutzea, norberaren eta besteen jokabideak nolakoak diren interpretatzea, norberari eta gainerakoei merituak nola esleitu eta ardurak gainetik nola kentzen dituen.
4. Banakoak esperientzia pertsonalen bidez gizartean suertatzen diren egoera guztiak arrazoitzeko erabiltzen duen metodoa zein den ikertzea.

Helburuak zeintzuk diren ikusita, argi dago bizitza-istorioen bidez pertsona baten inguruko datuak jaso daitezkeela. Adibide gisa aurki daiteke Sanchez-ek (1995) burututako ikerketa: “Historias de vida de inmigrantes”. Honakoan, neskame gisa jarduten zuten Marokoar eta Poloniar jatorriko emakumeek hartu zuten parte. Erbesteratuak izan ziren pertsona hauen migrazioa ezagutzeko helburu nagusia zuen ikerketak. Horretarako, haien jatorrizko lurraldeko eta Madrilera heldutakoan zuten testuinguru sozialak nolakoak ziren ezagutu behar zen. Horretaz gain, jasaten ari ziren eboluzio sozialaren berri jakitea ere garrantzitsua zen. Gainera, ikerketan garrantzia ematen zitzaion prozesu sozial honetan hizkuntzaren ezaguerak zeukan eraginari: gizarteko talderen batean integratzeko edota eguneroko egoerei aurre egiteko hizkuntza berriak zerikusia zuen edo ez kontuan hartzen zen.

## **2. Proposamena: “Alkira oin-puntetan”**

Atal honetan, sortutako proposamenaren nondik norakoak aurkeztuko dira. Izan ere, behin marko teorikoa aztertuta, errealitatera hurbiltzen saiatuko da. Horretarako, ikerketa kualitatiborako erabili den bizitza-istorioen teknikaz baliatuz, ikus-entzunezko baliabide bat sortu da: “Alkira oin-puntetan” istorioa.

### **2.1. Ezaugarriak**

Istorioaren izenburua “Alkira oin-puntetan” da eta ikasleek bi formatutan dute eskuragarri: bata ikasleek esku artean izan dezaketen istorioa da. Izatez, ikasleek ukitu dezaketen baliabidea izanik, istorioarekin transmititu nahi den mezua ulergarriagoa izatea espero da. Bigarren formatua, elektronikoa da (CDa), non istorioaren orrialdeak pasatzen joango diren ahots batek istorioa kontatzen duen bitartean. Honi esker, desgaitasunak dituzten ikasleei ere “Alkira oin-puntetan” eskaintzeko aukera dago. Berebat, proposamenarekin, honako hau lortu nahi da: munduko gizarte zein hizkuntza ezberdinak ezagutzea, eta aniztasuna identifikatzen jakitea honen aberastasunaz ohartzeko. Aldi berean, gizartean emakumeen eta gizonen artean dauden ezberdintasunez jabetzea.

Alkira, ipuineko protagonista nagusia da, eta hasieratik berarekin bidaiatzera gonbidatzen du irakurlea. Halaber, irakurlearekin elkarrizketan dabil ipuin osoan zehar. Istorioaren haria, kultura berriak ezagutzeko jakin-mina da, bere amonak kontatzen zizkion esperientzia ezberdinetatik abiatzen dena. Kuriositate honekin, irakurlea munduko herrialde ezberdinetako ohitura eta bitxikeria askotaz jabetuko da.

Aipatzekoa da, egiazko istorioetan oinarritutako ipuina dela. Horrenbestez, bizitza errealetako datuak erabiliko dira, ikasleentzako adierraza den kontakizun batera egokituak. Gainera, Alkirak kontatzen duen guztia hobeto ulertzen lagunduko duten marrazki simple batzuek osaturik dago ipuina.

## **2.2. Lantzen diren edukiak, gaitasunak eta helburuak**

Ikasleek etorkizunerako beharrezkoak izango dituzten kompetentziak lortzeko, landu beharreko zeharkako eta diziplina barneko kompetentziak zeintzuk diren zehazten dira Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumean (236/2015). Bertan adierazten den bezala “oinarrizko zehar-kompetentziak, diziplina-arloetan barneratzen diren neurrian, bitartekari edo eragile dira hezkuntza-helburuak lortzeko eta diziplina barneko oinarrizko kompetentziak eskuratzeko. Horrenbestez, Europako Parlamentuak eta Batzordeak (2006) gomendatu eta Espainiako azken bi lege organikoek (2006, 2013) arautu dituzten oinarrizko kompetentziak eskuratzeko eta hezkuntzaren xedeak erdiesteko bidea zabaltzen da.” (Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum 236/2015 Dekretua, 60.or)

Diziplina barneko kompetentzia espezifikoek dagokienez, proposamenak dituen bi ardatz nagusiak zehaztuko dira eta aldi berean, haiek lortzeko landuko diren arloak, helburuak eta edukiak adieraziko dira:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia: “hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Era berean, literatura-hezkuntza lantzea dakar kompetentzia honek, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzeko.” (Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum 236/2015 Dekretua, 95.or)

Honako kompetentzia hau garatzeko, Lehen Hezkuntzan Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, eta Atzerriko Lehen Hizkuntza dira jorratu beharreko arloak. Berebat, proposamenarekin Euskara eta Literatura, eta Gaztelania eta Literatura arloekin

etapa honetan lortu nahi den helburua hau da: “eskolako eta norbera bizi den inguruneke hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzea, aniztasun horrekiko jarrera positiboa barneratzeke, eta hizkuntzak komunikaziorako baliabide eraginkortzat eta kultura-ondareztat hartzea, portaera linguistiko enpatikoak garatzeko eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzeko.” (Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum 236/2015 Dekretua, 152.or) Atzerriko Lehen Hizkuntza arloarekin etapa honetan lortu nahi den helburua hau da: “atzerriko hizkuntza norberarenaz bestelako errealitate eta kulturak ulertzeko erabiltzea, eta errealitate horiek ulertzearen, errespetatzearen eta haiekin kolaboratzearen aldeko jarrera izatea.” (Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum 236/2015 Dekretua, 155.or).

Diziplina barneko konpetentzia honekin, 5. eta 6. eduki multzoak dira gehien landuko direnak: hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko gogoeta eta hizkuntzaren alderdi soziala.

- Konpetentzia sozial eta zibikoa: “nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzaren ohiko egoeretan, gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta anitza lortzeko bidea urratzearen.” (Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum 236/2015 Dekretua, 65.or)

Honako konpetentzia hau garatzeko, Gizarte Zientziak, Balio Sozial eta Zibikoak, eta Erljioa dira Lehen Hezkuntzan landu beharreko arloak. Orobat, proposamenarekin Gizarte Zientzien arloarekin etapa honetan lortu nahi den helburua hau da: “ezaugarri bereizgarriak dituzten gizarte eta kultura taldeetako kide direla ohartzea eta balioestea, norberaren kultura-ezaugarri bereizgarriak eta beste talde batzuekiko desberdintasunak aintzat hartzea, eta gainerako identitate, kultura eta herriekiko errespetua izatea eta giza eskubideak errespetatzea ezinbestekoa dela ohartzea. Horren guztiaren helburua da hezkuntzan kulturen arteko dimentsioa sustatzea da.” (Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum 236/2015 Dekretua, 166.or) Balio Sozial eta Zibikoak arloarekin etapa honetan lortu nahi den helburua hau da: “generoa, jatorria, etnia, sinesmenak, desberdintasun sozial eta pertsonalak, orientazio afektibosexualak edo beste edozein motatakoak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuiatzeko.” (Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculum 236/2015 Dekretua, 173.or)



Diziplina barneko kompetentzia honekin, 2. eta 3. eduki multzoak dira gehien landuko direnak: gure mundua eta haren kontserbazioa, eta gizartean bizitzea.

Behin diziplina barneko kompetentziak eta horien aspektu ezberdinak azalduta, proposamen honen bidez gehien garatzen diren oinarritzko zehar kompetentziak adieraziko dira:

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia. Kompetentzia hau zeharka lantzen da, proposamenaren erabilerak hizkuntzarekin lotura zuzena baitauka. Halaber, euskaraz irakurri behar dute ikasleek, eta ondoren ulermenaren bidez hizkuntzen inguruko hausnarketa bat burutu, gainerako kideekin komunikatuz osatu daitekeena.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. Ikasleek haien ikaskuntza-prozesuan etengabe garatzen duten gaitasunari deritzo. Lan honetako proposamenarekin, irakurmenaren bidez eskuratutako informazioaren inguruan hausnartzen da. Banaka zein taldeka burutu daitekeen gogoeta honi esker, jorraturikoa errealitateko egoera ezberdinetara transferitzeko aukera ematen da.
- Elkarbizitzarako kompetentzia. Ikas-estrategia sozio-afektiboen bidez lantzen den kompetentzia da. Gainera, proposamenaren helburu nagusiarekin harremanetan dago, elkarbizitzan baitauka abiapuntua. Norbere emozioez konturatzea eta gainerako kideen emozioekin ikasketa komuna burutzean datza. Horrenbestez, ipuinean aurkitzen diren istorio errealetako protagonistekin enpatia lantzeko baliagarria da.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia. Irakurmena eta gogoeta landu eta gero, bereganatutako informazioa errealitatera transferitzeko ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea eskatzen duen proposamena da. Jorratu diren ideia guztiak testuinguru anitzetan ekintza bihurtzera bultzatzen du ikaslea.
- Izaten ikasteko kompetentzia. Kompetentzia hau erabat landu daiteke proposamen honekin. Izan ere, aztertu egiten diren egoerei esker kultura askotako aspektu berriak ikasten dira. Horrela, ikasitakoa aintzat hartu eta norberaren identitatearen garapenean aplikatzen da. Azken finean, norbera izatea eta bere buruaren jabe izatea lortzen da.

### 2.3. Jarraitutako prozedura

Baliabide hau sortzeko jarraitutako prozesuak hainbat etapa izan ditu. Hasiera batean, kultura ezberdinetako hamar bat istorio, argazki eta testu gutxiko liburuxka batean batzea pentsatu zen. Ondoren, emakume eta gizonen arteko aldeak transmititzeko nahia azaleratu zen, egun oraindik gizartean emakumeenganako gutxiespenak nabariak baitira. Beraz, aldarrikapen gisa, emakume errealean bizitza-istorioak erabili dira soilik.

Erabakia hartuta, bizitza-istorioak burutzeko galdetegia sortu zen Silva-ren (2001) “Recogiendo una Historia de Vida. Guía para una Entrevista” lanean agertzen diren irizpideak kontuan izanik (*ikus ERANSKIN I*). Berebat, kontinente ezberdinetako jatorrizko emakumeekin harremanetan jartzeko unea heldu zen. Lehendabizi, anonimatua mantendu eta lortzen zen informazioaren erabilera zein izango zen argitzen zuen baimena sinatu zuten elkarrizketatuek (*ikus ERANSKIN II*). Baimen hori, gaztelaniaz idatzita dago, elkarrizketatuek ez dakitelako euskaraz hitz egiten ezta irakurtzen ere. Lehenengo elkarrizketa burutzean, hasiera batetik grabatzea pentsatuta zegoen irudiaren inguruan hausnartu zen. Izan ere, elkarrizketatuaren jarrera aldatzearen arriskua ikusi zen, eta ahotsa soilik grabatzea erabaki zen. Modu honetan, galdetegia lasai eta eroso erantzun zuten. Grabaketetarako, ordenagailua eta mugikorra erabili ziren aldi berean.

Elkarrizketak burutzean, hauen transkripzioa eta ipuinean erabiliko ziren datuak hautatu ziren. Aukeraketa eginda, euskarara itzuli ziren datuak, eta jarraian, istorioa idatzi zen. Horrela, istorioko gertakariekin bat zetozen marrazkiak egin ziren eta Adobe inDesign CS5 zein Adobe Photoshop CS5 (64Bit) programak erabiliz, istorioaren diseinua sortu zen (*ikus ERANSKIN III*). Bukatzeko, ipuin fisikoa sortzeko, diseinu grafikoan adituak diren denda batean inprimatu zen. Formatu elektronikoa lortzeko, ostera, inDesign CS5 programatik eskuratutako PDFari narrazioa audio eran gehitu eta liburuxkari CD batean erantsi zaio.

### 2.4. Nori bideratuta

Ikus-entzunezko baliabide hau, 2. zikloko ikasleei bideratua dago, hau da, 9-12 urte bitarteko ikasleei (Heziberri 2020). Erabaki hau, lantzen den gaiaren sakontasun eta garrantzia kontuan edukita hartu da. Orobat, irakurleak istorioan jorratzen diren gizarte eta hizkuntza ezberdinak munduko herrialdeetan kokatzea ezinbestekoa dela uste da. Beraz, orientazio geografiko hau bere baitan hartzen duen kompetentzia 1. ziklotik landu daitekeen

arren, 2. zikloko ikasleentzat aproposagoa dela pentsatzen da. Hori gutxi balitz, ipuineko zenbait datuk munduko herrialdeetan aurkitzen diren emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak islatzen dituzte. Orduan, baliabide hau ezberdintasun horietaz ere jabetzeko gai diren ikasleei zuzentzen da.

## 2.5. Erabiltzeko orientabideak

Ikus-entzunezko baliabide hau, goian aipatu den bezala, 2. zikloko ikasleekin erabili daiteke. Horretarako, eskuragarri dauden formatuetatik edozein erabilia, banakako zein taldekako lana jorrazteko aukera dago. Alde batetik, banakako lana dago, irakurmena edota entzumena lantzearekin batera gogoeta bat burutzerara eramaten duelako irakurlea. Ondorioz, lehenengo ekintza gisa banakako irakurmena edo entzumena egin daiteke. Beste alde batetik, interesgarria suertatuko litzateke beste irakurle edo entzule batzuekin kontakizuna komentatzea, eta norberaren iritzia besteen aurrean plazaratzea. Horretarako, istorioaren bukaeran eskaintzen diren galderak erabili daitezke. Atal honen izena “irakurritakoa lantzen” da, eta irakurlea gogoetara bideratzen duen galdera batzuez osatuta dago:

*Ametsetik esnatu ondoren, bakarka edo lagunekin jarri zaitzake hurrengo galdera hauei erantzuteko.*

*-Zer da amets honetatik gehien gustatu zaizuna? Noizbait bidaiatu duzu ametsetan? Nora? Norbait ezagutu duzu ametsean?*

*-Zeintzuk dira ezagututako emakumeen arteko ezberdintasun nagusiak? Eta horietatik atentzio gehien deitu dizuna? Zergatik?*

*-Ezagutzen dituzu beste kulturetako pertsonak? Nongoak dira? Zer ikasi duzu haiei esker?*

*-Kultura eta hizkuntza ezberdinak ezagutzeak zer nolako onurak dakartza zure ustez?*

*-Zure kultura eta hizkuntza garrantzitsuak direla esango zenuke? Zergatik?*

*-Herrialde gehiago ezagutzea gustatuko litzaizuke? Zein? Zergatik?*

*Partekatu erantzunak lagunekin!*

## 3. Ondorioak

Kontinente eta kultura ezberdinetako emakumeei egindako elkarrizketei esker, lau bizitza-istorio sortzeko aukera egon da. Honi esker, beste herrialde batzuetako ohiturak, janzkera, gizarteko egoera, eskoletan emakume eta gizonen arteko bereizketaren nondik

norakoak, herrialdearen arabera eskaintzen diren hezkuntza-baliabideak, lan-munduan generoa kontuan hartuta dauden irtenbideak, eta beste hainbat aspektu ezagutu egin ahal izan dira.

Proposamen honekin, arrazoi ezberdinen ondorioz ematen diren migrazioak eta horiek eragiten dituzten benetako pertsonen leku-aldaketak erakusten dira. Honi esker, kultura-aniztasuna identifikatzen ikasten dute ikasleek eta haien bizitzako egoeretara ikasitakoa transferitzean, identitatearen garapenarekin jarraitzen dute. Orobat, inguruan dituzten kideekiko errespetua erabat lantzen da testuinguruz hain era nabarmenean aldatzeak dakartzan onura eta kalteak jorratzen direlako istorio honekin. Halaber, egun eskoletan aurki daitekeen aniztasun-kulturalari erantzuna ematen saiatu, eta oraindik ere gizartean jarraitzen duen emakume eta gizonen arteko ezberdintasunez ohartzeko egokiera eskaini da.

Berebat, emakumeen ausardia eta indarra agerian geratu dira, hauen mespretxuari bide ematen dioten irudizko arrazoiak baliogabetu direlako. Horrelako proposamenak etorkizuna izango diren ikasleekin landuz, berdintasunean heztea eta guztientzako aukera berberak ematen dituen mundu berri bat sortzea espero da.

Amaitzeko, lan honen askatasuna azpimarratu nahi da. Norberak bizitako esperientziaren arabera gaia alde ezberdinetatik hartu, eta aniztasunarekin hezkuntza-munduan murgiltzeko baliabide oso ezberdinak sortu daitezke. Proposamenaren eraketan hasieratik bukaerara hartutako erabakiak guztiz pertsonalak izan dira, eta horri esker, egilearen formakuntza profesionala aberastea lortu da.

#### 4. Erreferentzia bibliografikoak

Aizpuru, A., Altonaga, B., Gallettebeitia, I., Olariaga, A. (2012). *Euskal Herriko pentsamenduaren gida*. Hurrengo helbide honetatik berreskuratuta: [www.ueu.es/download/liburua/Pentsamendua.web.pdf](http://www.ueu.es/download/liburua/Pentsamendua.web.pdf) (Kontsulta: 2019/03/12)

Arexolaleiba, J. (2004). Europan eta munduan aniztasuna: etorkizuna = etorkintasuna?! *BAT aldizkaria*, 52. Hurrengo helbide honetatik berreskuratuta: <http://www.soziolinguistika.eus/fr/node/1827> (Kontsulta: 2019/04/01)

Baglietto, A., Garmendia, I., Suberbiola, P., Urdangarin, M. (2003). Etorkinak eta euskara: hausnarketarako oharak. *BAT aldizkaria*, 47. Hurrengo helbide honetatik berreskuratuta: <http://www.soziolinguistika.eus/node/1009> (Kontsulta: 2019/03/09)

Berritzeguneak (2000). *Aniztasunaren trataera. EAetik egindako hausnarketak*. Bilbo: Eusko Jaurlaritza. Hurrengo helbide honetatik berreskuratuta: [https://www.berrigasteiz.com/site\\_argitalpenak/docs/120\\_diversidad/1202000001\\_e\\_Doc\\_CEE\\_aniztasunari\\_erantzuna\\_e.pdf](https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/120_diversidad/1202000001_e_Doc_CEE_aniztasunari_erantzuna_e.pdf) (Kontsulta: 2018/11/06)

Berritzeguneak (2015). *Hezkuntza berriztatzeko lehentasun ildoak 2015-2016*. Eusko Jaurlaritza. Hurrengo helbide honetatik berreskuratuta: [https://www.berrigasteiz.com/site\\_argitalpenak/docs/000\\_sistema/0002015002c\\_Pub\\_EJ\\_lineas\\_1516/0002015002e\\_Pub\\_EJ\\_lineas\\_1516\\_e.pdf](https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/000_sistema/0002015002c_Pub_EJ_lineas_1516/0002015002e_Pub_EJ_lineas_1516_e.pdf) (Kontsulta: 2018/12/02)

Chárriez Cordero, M. B. (2012). Historias de vida: Una metodología de investigación cualitativa. *Revista Griot*, 5(1), 50-67. Hurrengo helbide honetatik berreskuratuta: [https://scholar.google.es/scholar?hl=es&as\\_sdt=0%2C5&q=Historias+de+vida%3A+Una+metodolog%C3%ADa+de+investigaci%C3%B3n+cualitativa&btnG=](https://scholar.google.es/scholar?hl=es&as_sdt=0%2C5&q=Historias+de+vida%3A+Una+metodolog%C3%ADa+de+investigaci%C3%B3n+cualitativa&btnG=) (Kontsulta: 2019/01/07)

De Carlos García, Á. eta Rubio Carcedo, T. (1995). *Lehen Hezkuntzan aniztasunaren trataerari heltzeko orientabideak*. Curriculuma Eratzeko eta Irakasleen Prestakuntzarako Institutua. Hurrengo helbide honetatik berreskuratuta:

<https://www.google.com/search?q=lehen+hezkuntzan+aniztasunaren+trataerari+heltzeko+orientabideak&oq=lehen+hezkuntzan+aniztasunaren+trataerari+heltzeko+orientabideak&aqs=chrome..69i57.9536j0j7&sourceid=chrome&ie=UTF-8>

(Kontsulta: 2018/12/07)

Espainia. Estatuko jefatura. (1993). Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorren Lege Organikoa (L.O.G.S.E.) (1/1993 Dekretua) Honako helbide honetatik berreskuratua: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1990-24172> (Kontsulta: 2019/03/02)

Euskal Autonomia Erkidegoa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Saila. (1983). Euskal Herriko hizkuntza ofizialen irakaskuntza unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan. (138/1983 Dekretua) Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/1983/07/8301433e.shtml> (Kontsulta: 2019/02/28)

Euskal Autonomia Erkidegoa. Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza. (1993). Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea (E.E.P.L.). (1/1993 Dekretua) Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/CCAA/pv-11-1993.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/pv-11-1993.html) (Kontsulta: 2019/03/02)

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. *Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari erantzuna*. Euskadi.eus, Hezkuntza Saila. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <http://www.euskadi.eus/hezkuntza-inklusihoa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/> (Kontsulta: 2018/02/11)

Eusko Jaurlaritza (2014). *Hamaika Esku programa*. Euskadi.eus: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Honako helbide honetatik berreskuratua: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_diversid/adjuntos/17\\_aniztasuna\\_120/120015e\\_Pub\\_EJ\\_hamaika\\_esku\\_laburpen\\_e.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120015e_Pub_EJ_hamaika_esku_laburpen_e.pdf) (Kontsulta: 2019/04/05)

Ezama García-Ciaño, E. (2015). *Guía para la elaboración de la historia de vida*. Observatorio de la Infancia y Adolescencia del Principado de Asturias: Consejería

de Bienestar Social y Vivienda. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <https://www.observatoriodelainfanciadeasturias.es/documentos/f10072015101807.pdf> (Kontsulta: 2019/04/09)

Gaindegia (2018). *3.142.982 biztanle Euskal Herrian, horietatik %79,8a hiriguneetan edo bitarteko hiriguneetan*. Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <https://www.gaindegia.eus/eu/Euskal-herriko-biztanleria-2018-01-19> (Kontsulta: 2019/02/03)

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. (EHAA, 2016-01-15). Honako helbide honetatik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf> (Kontsulta: 2019/05/02)

Kuper, A. (2001). *Cultura. La versión de los antropólogos*. Bartzelona: Paidós Básica. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: [https://monoskop.org/images/e/ef/KUPER\\_Adam\\_Cultura\\_La\\_veri%C3%B3n\\_d\\_e\\_los\\_antrop%C3%B3logos\\_2001.pdf](https://monoskop.org/images/e/ef/KUPER_Adam_Cultura_La_veri%C3%B3n_d_e_los_antrop%C3%B3logos_2001.pdf) (Kontsulta: 2019/03/05)

Landa Herbias, G. (2018). *Etorkinak %9 inguru dira; jendearen pertzepzioaren arabera %20*. Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: [http://www.ikuspegi.eus/eus/prensa/entrada\\_prensa.php?id=162147](http://www.ikuspegi.eus/eus/prensa/entrada_prensa.php?id=162147) (Kontsulta: 2019/03/09)

Larrea Sagarminaga, M.A. eta Mieza Mieg, R.M<sup>a</sup>. (2004). *Euskal Herriko kulturak eta hezkuntza (XVI-XVIII. mendeak)*. Euskadi.eus, Atlas Historikoa. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c0201/eu\\_d0201016/0201016.html](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201016/0201016.html) (Kontsulta: 2019/02/03)

Liga española de la educación (2017). *Red de Escuelas Interculturales: Programa de sensibilización sobre diversidad cultural*. ligaeducacion.org: Laneko, Migrazioko

eta Gizarte Segurantzako Ministerioa eta Europar Batasuna. Honako helbide honetatik berreskuratua: <https://ligaeducacion.org/inmigracion/rei/> (Kontsulta: 2019/04/09)

Monje Álvarez, C.A. (2011). *Metodología de la investigación cuantitativa y cualitativa. Guia didáctica*. Nieva. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <https://www.uv.mx/rmipe/files/2017/02/Guia-didactica-metodologia-de-la-investigacion.pdf> (Kontsulta: 2019/03/02)

Ommer, U., Mistral, L., eta Monsabert, A-S.D., (2011). *Niños de los cinco continentes*. Madrid, Espainia: Ediciones SM (Cesma).

Rocher, G. (1968). *A General Introduction to Sociology. A theoretical perspective*. Kalkuta, India: B.K. Dhur, Academic Publishers.

Sánchez Martín, M.E. (1995). Historias de vida de inmigrantes. *Didáctica*, 7, 271-278. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <https://revistas.ucm.es/index.php/DIDA/article/download/DIDA9595110271A/20067> (Kontsulta: 2019/04/08)

Silva, A. (2001). Recogiendo una Historia de Vida. Guía para una Entrebosta. *Fermentum. Revista Venezolana de Sociología y Antropología*, 11 (30), 155-161. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=70512127012> (Kontsulta: 2019/03/21)

Tuckermann, A., (2016). *¡Todo el mundo!*. Espainia: TAKATUKA.

Urtxintxa kalitatezko herritarrak (2006). *Alea Tita Konba*. Urtxintxa.eus. Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <https://www.urtxintxa.eus/zerbitzuak-zaharra/heziketa-aktiboa/alea-tita-konba/> (Kontsulta: 2019/05/20)

Vicente Torrado, T.L. (2008). *Euskal eskola immigrazioaren errealitatearen aurrean: erronka berri bat*. Etxebizitza eta Gizarte Politiketako Saila, Vitoria-Gasteiz.



Hurrengo helbide honetatik berreskuratua: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>  
(Kontsulta: 2019/01/08).